

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

23/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, garraioa publiko jasangarriaren erabilera bultzatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

23/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, garraioa publiko jasangarriaren erabilera bultzatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek positiboki baloratzen dituzte Arabako Foru Aldundiak prebentzioa eta garraio publikoko erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko abian jarri dituen neurriak, bai eta pandemiaren testuinguruan oinezko eta ziklisten mugikortasuna herriguneetan errazteko hartutako neurriak ere. Era berean, tokiko administrazio guztiei eskatzen diete lanean jarrai dezatela oinezko, ziklista eta garraio bide publikoentzako espazio publikoa irabazteko estrategia bateratuan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala sustatzen Vitoria-Gasteizko hiri-garraioaren eta Arabako Foru Aldundiaren hiri arteko garraio sarearen arteko trukaketa guneen erabilera sustatzeko jarduketak, lurraldean garraio publikoaren erabilera bultzatzeko helburuz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA